



Aiturri

Beterri-Aiztondoko hamaboskaria

- ▶ Jose Ramon Amondarain margolaria
- ▶ EHE, euskararen alde lanean Amasa-Villabonan
- ▶ Javi Penas, sukaldari eta irakasle
- ▶ Gorostidi Harria, Mendizabalen omenez

Pello Mari Otañoren mendeurrena

TOKIKOM



AITA LARRAMENDI IKASTOLA - ANDOAIN

Txistoki Pasealekua, z/g - Tel: 943 593 525 - E-posta: andoain@ikastola.net - Web: www.andoainikastola.net

BATXILERGOA euskaraz eta ikastolan

Zientzia eta Teknologia - Giza eta Gizarte Zientziak

- Kalitate kontrastatua - Langiro ona
- Instalazio eta ekipamendu egokiak

- Orientazio profesionala
- Tutoretza pertsonalizatua

**INGELESA
JAKINTZAGAIETAN
APLIKATUA**

Basterock Gauak-3 Bill Kirchen

Sarrerren salmenta



SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

APIRILAK 30, ostirala - 22:30

ANDOAIN DANTZAN



Urki dantza taldea

APIRILAK 25, igandea - 12:00

Dantzaren nazioarteko eguna



Azelain ballet taldea eta Txiki Band-a

APIRILAK 29, osteguna - 18:30

Gorringo taldea Xabinaitor

MAIATZAK 7, ostirala - 21:30



Matrikulazio epea:
Maiatzaren 3tik 14ra
Iraila, urrian hasteko

Harrera ordua:
12:00etatik 13:00etara

Seaska

Haurre Eskola

Villabona

Kale berria, 31 - Tel.: 943 69 20 29



Iritzia

Xabier Huizi
Andoain

Tamaina (hartzea)-ren garrantziaz

Ez da lehen aldia "isiltasunaz" dihardudala atal honetan, baina egunotako hainbat irakurketak ekarri naute berriro isiltasunera. SGAE (tristeki) famatu den garaiotan hainbatek uste du gauza oker guztiez gain zerbait zuzenik ere lortuko duela, alegia, behar ez den lekuetan musikarik ez izatea eta dagokion paisaiaren hotsa, doinua edo abarrotsa entzuteko parada izatea.

Egia da II. Mundu Gerraz geroztik oso modan jarritako eta eten-gabe hazten doan **background** edo "fondoko musika" fenomenoak ia leku (eta pertsona) guztiak betetzen dituela "okupatzea" ren zentzuan. Askoren ustez **Aaron Copland** izan daiteke musikaren ikuspegi funtzional hau gehien garatu zuena eta modan jarrituena irakurtzeko, lanerako edo ikasteko, erlaxatzeko, lokartzen laguntzeko eta abar luzerako musika bildumak.

Zalantzarik gabe musikak emozioak azalazten, dantzan jartzen dituen heinean, gizakiaren egoera ezberdinetarako lagungarri da egoera ezberdin horietan sentimendu, sentsazio eta emozio oso ezberdinak bizi ditugunez. Horrela egin



Azkenerako batek ez du jakiten banketxean zain dagoen bitartean musika lagungarri jartzen ote dioten edo zor handiagoak hitzartzeko ez ote duten egiten

izan da askotan musikaren sailkapena ere: halako musika "ona da" horretarako, halako konposatzailearen musikak "halako efektua lortzen du"... Musika dendetan askotan topatzen ditugu honetarako eta hartarako bilduma ezberdinak. Lagungarri dira zalantzarik gabe, batez ere, egoera emozional jakin bati erantzun nahi eta han eta hemen bila ibili nahi ez badugu (edo ez badakigu).

Baina honek guztiak onurak dituen bezala, izango ditu bere alde ilunak, nola ez. Esaterako, tabernetan musika zarataren pareko egoteak "lagundu" egiten omen du edaten edo halako produkzio kateetan musika jakin batek "hobetu" egiten ei du errendimendua... Behi, ardi eta zerriak ere "emankorrago"

izaten omen dira musika klasikoak entzunez gero..., baita landareak gehiago eta ederrago hazi ere!

Azkenerako batek ez du jakiten banketxean zain dagoen bitartean musika lagungarri jartzen ote dioten edo zor handiagoak hitzartzeko ez ote duten egiten. Edo zentro komertzialetan, lehen ere nahikoa zarata ez eta "musika" jartzen ote duten erlajaziorako edo behar ez duzuna ere etxera eraman dezazun... Azken batez, musika gure emozioa ez baino gure kartera dantzan jartzeko ez ote den erabili nahi.

Panorama honen aurrean, ez al da eskertzeko isiltasun pixka bat? Entzun dugu hirietako argiteriaren gehiegizkoak ez digula uzten ilargia edo izarrik ikusten. Horrelako zerbait gerta daiteke gehiegizko musikarekin ere: inguruko hots, ahots eta doinuak entzuten ez uztea. Eta gehien kezkatzen nauena zera da, "zertarako musika" pentsatzeak, musikaren ikuspegi funtzional soilak lekua hartu ote dion benetan funtsezko litza-tekeen ikuspegi eta jarrerari, alegia "zergatik musika" galderari erantzun egokia ematen saiatzen denari.



Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Babesleak: Aduna, Andoain, Amasa-Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

Ekoizlea: **ERROITZ**

Egoitza Orokorra: Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. E-posta: betterri@aiurri.com

Zizurkilgo egoitza: Bulandegi bidea 23, Karidade-enea etxea. 20150. Zizurkil. Tel.: 943 696 450. E-posta: urkizularramendi@topagunea.com

Zorion agurrak: diseinua@aiurri.com Oharra: zorion agurrak garaiz bidali behar dira, urtebetetze eguna baino hamar egun lehenago.

Arduraduna: Ainhoa Arozena.

Erredakzioa: Ainhoa Arozena, Ainhoa Gil.

Erredakzio laguntzaileak: Joni Ubeda, Xabier Lasa, Ainhoa Aiertza, Bakartxo Iguaran, Aitor Usandizaga, Amaia Agirre, Aritz Garin, Xabier Huizi, Ainara Ansa, Antselmo Larrarte, Koldo Jauregi, Marijuli Azkue, Joxin Azkue, Garazi Kamio, Txomin Garmendia, Karmen Rodriguez Ranz, Igotz Alkorta, Jon Unanue, Mikel Manzisidor eta Leire Zubeldia.

Edizio jarraia: www.aiurri.com

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Diseinua: Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu.

Administratzailea: Garbiñe Ugartemendia.

Banaketa arduraduna: G. Ugartemendia.

Banatzaileak: ANDOAIN: Jon Beloki. AMASA-VILLABONA, ELBARRENA, ADUNA, ZIZURKIL GOIA, ASTEASU eta LARRAUL: Garazi

Harpidetza egiteko: idazkaritza@aiurri.com

Inprimategia: Sortu Grafikak S. Koop. (Zizurkil).

Lege Gordailua: SS-202/94.

ISSN: 1134-0614.

Tirada: 1.800 ale.

Oharra: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Laguntzaileak:

Eusko Jaurilitza
Hizkuntza Politikarako
SailburuordetzaGipuzkoako
Foru Aldundia

Aurkibidea

343 zenbakia

2010eko apirilaren 23a

Hamabostean behin

www.aiurri.com 4
Zorion agurrak 5

Luze eta zabal

Pello Mari Otañoren
mendeurrena 6-8

Larraul

Berrikuntzak maiatzetik aurrera 9

Andoain

Jose Ramon Amondarain
margolaria 10-11

Amasa-Villabona

EHE, euskararen alde lanean 12
Herriarteko pilota txapelketa 13

Asteasu

Javi Penas, sukaldari eta irakasle 14

Aduna

Gorostidi Harria,
Mendizabalen omenez 15

Promozioa

Irakurri, Gozatu eta Oparitu
egitasmoa 16

Atzera begira

Agenda 18



www.aiurri.com

Albisteak

Ubitarte futbol zelaia iren inaugurazio-ekitaldia



ANDOAIN ■ 2010-04-17

Ikusmin handia sortu zuen Andoaingo futbol zelaia iren eta atletismo gunearen ondoan eraiki berri diren instalakuntzen inaugurazio ekitaldiak. Jende asko hurbildu zen. Bertan, Fernando Narciso Kirol Patronatuko lehendakariak eta Estanis Amutxastegi alkateak hitz egin zuten, baita Euskaldunako lehendakari Joxe-an Huitzik ere. Denek instalakuntzen kalitatea goretsi zuten. Zinta moztea, agurra eta adierazpen instituzionalak amaituta, Anjel de la Hozarkitektoak gidatutako bisita egin zen eraikinak dituen bi solairuetan barrena.

Aiztondora! elkartasun egunaren aurkezpena



AMASA-VILLABONA ■ 2010-04-17

Aiztondo bailarako presoak herriratzeko eskatuz, apirilaren 24an Amasa-Villabonako burutuko den Aiztondora! elkartasun eguna iragartzeko, eskualdeko herritar ugari parte hartu zuen prentsaurerko jendetsua egin zen Amasa-Villabonako Behar-Zana pilotalekuan. Larunbatean, goizean hasita, hainbat ekintza izango da eskualdeko presoak gogoan: Besteak beste, diana, *Burdinen arteko herria* liburuaren aurkezpena, herri kirolak, herri bazkaria, haurrentzako jolasak edota Kantujira taldearen emanaldiak osatuko dute egitaraua.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia



ESKUALDEA ■ 2010-04-16

Amasa-Villabona, Zizurkil eta Adunako Udalek, Tolosaldeko beste hamabost herriekin batera, 'Egizu deklarazioa euskaraz' kanpaina aurkeztu zuten Anoetako udaletxean. Herri horietan guztietan errenta aitortpena euskaraz egiteko dauden aukera ezberdinen berri ematen duten esku-orriak banatuko direla jakinarazi zen. Errenta aitortpena egiterakoan euskararen presentzia indartzea lortu nahi dute ekimenaren deitzaileek, "Foru Aldunditik iritsitako datuen arabera, Tolosaldeko herritarren %12k besterik ez du egiten euskaraz errenta aitortpena".

Albiste gehiago

ANDOAIN ■ 2010-04-16

Juan Joxe Petrikorena andoaindarra aske geratu zen, beste hainbat kideekin batera, 50.000 euroko bermea ordaindu eta gero. Besteak beste, politikan jarduteko debekua dute edota Espainiako mugak igarotzekoa. Petriko-renaren ongi-etorri ekitaldian Ertzain-tzarekin istiluak izan ziren Andoainean.

ZIZURKIL ■ 2010-04-16. Anjel Mari Peña-garikano eta Xabier Amuriza bertsolariek Atxulondo Kultur Etxean taularatu zuten 'Pello Mari Otaño, atzerriko oroimina' emanaldiarekin eman zitzaizen hasiera Zizurkilgo bertsolariaren mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldiei. Jende asko gerturatu zen lehen saiora. Maiatzean zehar izango da jarraipena.

ESKUALDEA ■ 2010-04-15. Amasa-Villabona, Zizurkil eta Adunako postontzietan banatutako iragarrien neurrak egin du UEMAK, Galtzaundiren laguntzarekin. Ikus emaitzak webgunean.

XXII
Abian da XXII.
Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria
Andoainean

Kirola

Herriarteko pilota txapelketa

Joan zen apirilaren 16an ekin zitzaion Herriarteko pilota txapelketari. Beterri-Aiztondotik, Andoain eta Amasa-Villabona ari dira txapelketan parte hartzen. Joaneko partidak Eskoriatzaren aurka jokatu zituen Andoainek, emaitza ezin hobeak eskuratuz: Kadeteak Andoain (Maiza-Jauregi) 22-0 Eskoriatza. Jubenilak Andoain (Iras-torza-Ulango) 22-6 Eskoriatza. Nagusiak Andoain (Eskudero-Sagaseta) 22-12 Eskoriatza. Amasa-Villabonak, berriz, Albizturren aurka jokatu zuen. Aurkari gogorren aurrean gustura aritu zirela adierazi dute, partida bakarra irabazi bazuten ere: Kadeteak Villabona (Otaño-Ormazabal 'Artzaia') 5-22 Albiztur. Jubenilak Villabona (Arrue-Karre-ra) 22-2 Albiztur. Nagusiak Villabona (Arretxe-Lizaso) 9-22 Albiztur.

Argazki bildumak



'Pello Mari Otaño, atzerriko oroimina' emanaldia.

Ubitarte zelaia iren inaugurazioa.



Istripu ikusgarria Adunan.

Urnieta-Adarra lasterketa.

Bideoak



Herriarteko txapelketa.

Burdinaren martxa.



ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea
Lan elektro-mekanikoak

Pablo Gorosabel, 48
☎ 943 655 476 **TOLOSA**

Sorabilla auzoa, 53
Poligonoa •
☎ 943 592 411 **ANDOAIN**

Zorion-agurrak

Igorri argazkia eta idatzia Andoaingo edota Zizurkilgo egoitzara

diseinua@aiurri.com edota <http://www.aiurri.com/agurrak.php>



ZORIONAK
Inuntze Olano
Artolak 2 urte
bete zituen
apirilaren 9an.
Zorionak eta
muxu potoloak
etxekoan
partetik.
Andoain



ZORIONAK
Anastasio
Berruetak 95
urte bete zituen
apirilaren 15ean.
Zorionak
Berrueta Elizegi
famiariaren
partetik.
Andoain



ZORIONAK
Hilaren 22an 15
urte beteko ditu
Julen Astiazarane.
Segi beti
bezain jator. Ondo
pasa kuadrilan eta
muxu potoloak,
etxekoan partetik.
Zizurkil, Andoain



ZORIONAK
Inma Eizagirrek
apirilaren 17an
urteak bete
zituen.
Zorionak bere
guraso,
anaia eta
etxeko txikiak
partetik.
Andoain



ZORIONAK
Apirilaren 10ean
Markel
Arruabarrena
Ezeizak 2 urte
bete zituen.
Zorionak eta
muxu handi bat
etxekoan
partetik.
Zizurkil



ZORIONAK
Zorionak
Wuapixima! Oso
ondo pasa. Jarrai
ezazu hain jator
eta alai. Muxu
handi bat. Telmo
eta Eva.
Andoain



ZORIONAK LAIENE ETA ELI!
Mila kilo zorion dizugu eskaintzen...
Bai gustura oporretan e bikote!
Laster dator berriz uda eta
disfrutatzeraz! Muxu handi bat.
Ibai eta Imanol
Andoain



ZORIONAK
Antonio Kortajarena eta Olaia
Muñoak apilaren 11n bete zituzten
urteak:
aitonak 82 eta bilobak 2 urte.
Zorionak eta muxuak etxekoan
partez.
Zizurkil



ZORIONAK
Zorionak apirilean urteak betetzen
dituzuenoi!!
Aduna



ZORIONAK
Apirilaren 21ean 3 urte beteko
dituzte Asier eta Pello Aranburu
Garmendiak. Txokolatzeko muxuak
gure bikotearentzat.
Amasa-Villabona



ZORIONAK IRENE
Irene Rapun
Perezek
apirilaren 25ean
8 urte beteko
ditu. Muxu
potoloak etxeko
artistari.
Andoain



ZORIONAK
Irati Ezeiza
Usabiagak
apirilaren 26an 13
urte beteko ditu.
Ondo pasa zure
egunean, aitona
Esteban eta amona
Mirenen partetik.
Andoain

Demografia

JAIOTZAK

Leire Ambugurit Etxeberria
Apirilaren 2an, Andoain

Eloy Jimenez Gimenez
Apirilaren 3an, Andoain

Maddi Biurrun Belamendia
Apirilaren 9an, Andoain

Malak Elmorabet
Apirilaren 9an, Andoain

Saioa Moya Arrieta
Apirilaren 12an, Andoain

Aroa Lopez Rincon
Apirilaren 12an, Andoain

Izaro Cajaraville Reoyo
Apirilaren 14an, Andoain

Aixa Gonzalez Etxeberria
Apirilaren 8an, Amasa-Villabona

Oihan Navarro Garitano
Apirilaren 13an, Adun

HERIOTZAK

Bernardino Hueso Hueso
Apirilaren 13an, Andoain

Zizurkil - 2010-04-16



Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza: 'Pello Mari Otaño, atzerriko oroimina' emanaldia. Atxulondo Kultur Etxearen jende bete zen. Argazki gehiago eta bideoa ikusgai aiurri.com-en.

PEEZEIZA

Pertsianak, motorizazioa eta ate metalikoak

www.ezeiza-pertsianak.com

A s t e a s u
943 690 821

Pello Mari Otañoren ar



Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarra zendu zela 100 urte betetzen direnean, haren oroimenezko ekintza mordoa antolatu du **Teodoro Hernandorena kultur taldeak**.

Teodoro Hernandorena taldeko kideak, antolatutako egitarauarekin pozik.

Maiatzaren 7an beteko da mendeurrena eta egun berezia izango da Zizurkilen, bertako Seme Kuttun izendatuko baitute Pello Mari.

Bideratu dituzuen ekintza guztien artean, Pello Mari Otañoren arnasa liburua izango da agian garrantzitsuenetakoa. Zein pauso eman dituzue lana gauzatzeko?

Aurrez Otañoren lan literarioa ederki aztertuta zegoenez, alderdi biografikoa garatzea erabaki genuen. Otañori bizitza egokitu zitzaion garai hori landu dugu liburuan: Garai hartako Euskal Herrian eta Zizurkilen eman zituen urteak aztertuz eta baita Argentinakoak ere.

Aurrez argitaratutako lanean oinarritu eta artxiboetara joz, poliki ekin genion talde lanari. Gero, taldekide batudan Argentinara joan zen eta, ia kasualitatez, Otañoren bilobetako bat ezagutu zuen: Txuri.

Harreman estua egin eta gero, oso baliagarria izan da hangoen laguntza. Besteak beste, La Platako unibertsitatean oso euskal gune garrantzitsua dago. Tartean dira Arrondo eta Pedro Mauregi ere, eta besteren artean, haien laguntza ere ezinbestekoa izan da.

Bertsoak baino pasarteak bildu dituzue liburuan. Zein helbururekin?

Garai hartako historia eta giroa ezagutzearekin batera, geuk ere liburutik ikastea izan da helburua. Izan ere, taldearen nahia, gure historia aztertu eta jende-ari modu egokian ezagutaraztea izan dira hasieratik. Otañoren figura bere testuinguruan kokatu nahi izan dugu modu sakon, apal eta ulergarrian. Pasadizoren bat hobeto adierazteko soilik tartekatu ditugu bertsoak;

gainerakoan, testuekin osatu dugu liburua. Baina esaterako, bertso horietako batzuk oso-osorik sartu ditugu. Orain jakin dugu azken urteak Pampako nekazari sekulako sarraskiak egiten zizkien langosta plagen aurkalanean igaro zituela eta editore batek lan horren inguruan idazteko eskatu eta hainbat bertso idatzi zuela. Bertso haiek garai hartan argitaratu baziren ere, orain artean ez dira inolako bildumatan bildu. Oso bertso bereziak dira, azkena batez ere.

Hasieran zenuten asmoa luzatu egin omen zaizue...

Hasieran azterketa lan txiki bat egitea pentsatu genuen. Konturatzerako, ordea, ehun orrira ailegatu ginen eta 200 orri ondo pasatako liburua osatu dugu azkenerako. Guztira 1000 ale-

Mendeurrenari lotutako egitaraua

■ **Maiatzak 6, osteguna:** Pello Mari Otañoren arnasa liburuen aurkezpena.

■ **Maiatzak 7, ostirala:** Mendeurrenaren egunean Udal batzar berezia, Pello Mari Otaño Herriko Seme Kuttun izendatuz. Segidan, Otañoren omeneko ekitaldia. Ondoren, herri afaria Intxaur frontoian. Eñaut Agirre, Jexus Mari Irazu eta Sebastian Lizasok Pello Mari Otañoren bizitzaren irudikapena egin eta bere bertsoak kantatuko dituzte.

■ **Maiatzak 9, larunbata:** Pello Mari Otañorekin lotutako ibilbidea, iturri nagusi izan diren Teodoro Mujika eta Joxe Iztuetak lagundua.

■ **Maiatzak 12, asteazkena:** Pello Mari Otañoren bertsoingintza eta lan literarioari buruzko mahai-ingurua, herritarrei zuzendua.

■ **Maiatzak 15, larunbata:** Bertsojaialdia Intxaur pilotalekuan. Xabier Amuriza, Anjel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre, Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Jexus Mari Irazu.

■ **Maiatzak 20, osteguna:** Herriko hiru ikastetxeetako ikasleek Otañoren bizitza eta bertsoen emanaldia Intxaur pilotalekuan.

■ **Ekainean zehar** Argentinako La Platako unibertsitatean hitzaldia eta hilobian omenaldia.

ko tirada kaleratuko dugu eta interesa daukanak udaletxean jaso ahal izango du. Gure iritziz nahitaezkoa da liburuaren gaztelaniazko itzulpena egitea; ezinbesteko laguntza eskaini diguten lagun argentinarrak uler dezaten, bereziki. Udalari itzulpena gauza dadin ahalegintzea eskatzen diogu.

Irakurle guztiak ekitaldietan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

rastoaren atzetik

Teodoro Mujika, bertsolari handiaz

Teodoro Mujika zizurkildar bertsolariak garai bateko eskualdeko bertsolarien berri ederri ezagutzen du, baita Pello Mari Otaño zena ere.

Aita Zabalak Otañoren inguruko biliburukiak atera aurretik, asko etortzen zen gure etxera; makina bat orduz aritu ginen liburu hura osatzeko lanean hemen". Mujikak, besteak beste, *Errekaldeko intxaurraren itzala* liburuan bilduma lan polita egin zuen eskualdeko bertsolarien berri bilduz. "Bertsolaria baino lardaskaria naiz ni. Kantatu baino idatzi egin ditut bertsoak gehiago, baita bildu ere. Liburuaren izenburua Otañoren jaiotetxeko zuhaitzetik hartu nuen, gerora usteldu eta haizeak bota zuena. Aita Zabalak proposatu zidan izen hori jartzea".

Mujikaren ustean oso bertsolari ona zen Otaño, eta olerkari bezala oraindik hobea. "Otañoren familia guztiarentzat gaitzaren modukoa zen bertsoa; gehienak bertsolariak ziren". Idatzi egin zuen kantatu baino gehiago; "nire antzera, eztarri ahula zuen kantatzeko. Bertsolari eta poeta handia izan zen, ikusi egin behar da bere aberastasuna! Oso hizkuntza samurra eta ederra zuen.

Aparta. Sukaldeko hizkuntza goxoa Errekalden zen. Garai batean, haurrak euskaraz ikas-terera eskolara eraman beharrean 'bidal itzazue Errekaldera, han ikasiko dute hitz egiten', esaten zen".

Otañoren bizimoduari buruz orain artean gauza gutxi ezagutzen zela azaldu du, Ameri-

ketan egin zituelako bere bizitzako urterik gehienak. "Errekalden jaio zen eta bizpahiru urte zituela, Karidadeko Benta etxea egin zuen familiak. Han bizitu eta gaztetxo zela, Donostiara joan ziren. 18 urterekin abiatu zen Ameriketara lehenengo. Geroztik, hiru bider etorri zen bisitan".



Amari bertsoak

Otañoren inguruan zer azpimarratuko lukeen galdetuta koan, Pello Mariren ama etorri zaio gogora, "izugarritzko meritua zuen emakume hark. Bederatzi seme-alaba izan zituen eta 52 urte zituela hil zen, perlesiak jo eta gero". Itxaropena argitaketxeak Pello Mari Otañoren bertsoekin

osatuta kaleratu zuen *Kuliska sorta* liburua berezia da Teodororentzat, "hemen dago mamia, harrigarria da. Anjel Mari Peñagarikanok *perla zoragarria* esaten dio liburuxka honi". Teodoro Mujikak, liburuan amari eskainitako bertso hauek aukeratu ditu beste askoren artean:

Amatxo laztana

Seme maite bat bere	Ama, aita, lagunak,	Ama, ona seme bat
Amaren onduan,	Erri maitatuba,	Urrutira joana,
Anbat ez da oroitzen	¿Aiñ nago zuengandik	Ama gabe inola
Zeñekin dagan;	Urrutiratuba!	Ezin bizi dana;
Argandik urrutira	Eri daukat biyotza	Ama, zuk badakizu
Joaten dan orduban,	Penaz nekatuba,	Maite zaitudana
Gogoratzen da, amak	Eta falta zait emen	Ama, barka zaidazu,
Zer baliyo duban.	Zeñek sendatuba.	¡Amatxo laztana!

Otañori omenaldi bat baino gehiago eskaini zaiola gogoratu du Teodorok, "oraingo hau laugarrena eta berezia

izango da". Hala ere, halako omenaldiak pertsona hil baino lehen egitea egokia goa dela uste du.



Zizurkilgo alkatea

Marianjeles Lazkano

"Zizurkil eta Otañoren arteko lotura oso estua da"

Pello Mari Otañoren mendurren omenaldian Udalak ere parte hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Elkarlan horretan gure parte hartzea maiatzaren 7ko batzarraren Pello Mari Otaño herriko seme kuttun izendatzea litzateke. Horretarako ordenantza bat egin dugu, aurrez ez baikeneukan antzeko egitasmoetarako oinarririk. Bestalde, aurtengo Maiatza Saltsan ekimeneko ekitaldi guztiak Otañoren inguruan izango dira. Mendurrenaren antolakuntza taldeak dinamika, borondate eta lanerako gogo handia dauka eta ekintza politak ez ezik, oso ondo aterako direla iruditzen zait. Argentinatik ere senitarteak etorriko dira eta udaletxea aztertzen ari da ekainean Argentinan egingo diren ekitaldietara Zizurkildik ordezkariaren bat bidaltzea.

Helduek bezala haurrek ere bat egingo dute Otañoren mendurrenarekin. Herrian badugu bere izena duen eskola ere eta haurrek ekitaldian parte hartzea nahi dugu, Pello Mariren lana ezagut dezaten. Egia esan, Otañok beti gorde izan du izena Zizurkil; izen hori ez zen sekula galdu, ezta Donostiara nahiz Argentinara bizitzera joan zenean ere. Bere irudia eta jaioterria oso loturik mantendu dira beti eta aurrez egin izan zaizkion omenaldietan ere, beti hartu dute parte zizurkildarrek. Zizurkil eta Otañoren arteko lotura oso estua da.

**UDA
BERRI**



TAILER ESPEZIALIZATUA

Konpontze lanak:

- Aldagailu automatikoak eta eskuzkoak
- Mantenimendua
- Diagnostika

Gorka Elduaen
Ibaiondo Poligonoa, 12
20150 - Aduna
Tel.: 943 692 164
Faxa: 943 692 254
udaberri1@hotmail.com

Otañoren ondorengo zizurkildarrak

Pello Mari Otañoren ondorengo zizurkildarrek bihotzean gordeta dute haren irudia. Aitaren nahiz amaren aldeko senideek hitz goxoak izan dituzte:

Joxe Iztueta eta Arantza Iparragirre

Zizurkilgo Arguitz baserrian jaio zen Joxe, gerora, Arantzarekin ezkondu eta egun Amasa-Villabonan bizi dena. Joxeren amona, aitaren aldetik, Pello Mari Otañoren lehengusu propioa zen. “Aitak Ameriketatik etorri zen aldiren batean ezagutu zuen eta kontu asko entzuten genion Pello Mari- ren inguruan”. Jexux aitak askotan kontatzen zuen pasarteak azaldu du bikoteak, “Pello Mari etorri zen batean, Santio ingurua izanagatik, gabana jantzita etorri omen zen. Hemen beroa egiten zuen eta geltokira Adriana lehengusua bila joan zitzaionean, ‘motel, kendu ezak gabana hori, bero egiten du eta’, esan omen zion. Hark, ‘gabana hau erantziz gero, zernaizela uste den ba’, erantzun. Oso eskasa eta ahulduta etorri omen zen eta bere burua estaltzeko jantzi zuen txamarra luzea”. Ameriketara lan ezberdinak egitea egokitu zitzaion; “alanbradore, perratzaile, artzain... Itxuraz, eskolak ematen ere aritu zen, oso bizkorra baitzen. Euskara dotorea zuen, errekaldearrak oso

hiztun onak zirela esaten zuen gure aitak”. Bertsolari bezala ere paregabea zela aitortu

dute. Gaztetxotan, Otañoren bertso asko ikasi zuen Joxek, “abestu ere asko egiten nituen. Pello Mari ez zuen ahots onik eta ez zuen askorik abesten, ‘Kattarro’ deitzen zioten”.

Joxe eta Arantza sei hilabetez bildu dira hilean behin Zizurkilgo talde antolatzailearekin. “Ekitaldi ederrak izango dira, gogoan edukitzeko modukoak. Ospakizun horiek guztiak merezi zituen Otañok. Batek baino gehiagok esaten zuen ez zitzaiola Ameriketara joaten utzi behar, hemen behar zirela halako pertsonak. Hala tokatu zen, ordeak: berriak liberalak ziren eta hemen karlisten gerra sortu zenean soldadu ez joateagatik alde egin zuela esaten da. Herri-irrimin izugarria erakutsi zuen beti bertsoetan”. Senar-emaztea oso esker oneko agertu da Teodoro Hernandorena kultur taldeko kideekin, “izugarri- rrizko lana egin dute eta gu oso pozik gaude haiek guzti-ekin. Gogotik saiatu dira”.



Juana Mari Arruti Barriola

Iragorri baserrian hazi eta Plazaetxeberri- rira ezkondu zen Juana Mari, amaren aldetik da Pello Mari- ren senitarteko. “Pello Mari eta amaren aldeko aitona lehengusu propioak ziren. Ondorioz, Pello Mari- ren alabak eta gure ama lehengusu txikiak. Laster etorriko diren Pello Mari- ren biloba Txuri eta Amelia, berriz, lehengusu txiki- en hurrengo- ak dira guretzat. Dese- atzen nago noiz

etorriko, ateak ireki eta garai batean izan genuen harremanari berriz heltzeko”.

Plazaetxe- berri etxea barriolatarrena izan da ia beti, “gerra ondorenean barriolatar batek maizter bati saldu zion etxearen erdia. Gerora guk etxearen erdia familiar- rik jaso eta beste erdia erosi egin genuen. Izugarri maite dute etxe hau, bere etxola eta baratzearekin lotuta”. Pello Mari- ren izeba Juanak taberna eta denda izan zituen garai batean bertan. “Denetarik izaten omen zuen, al- pargatak egiten zituen. Oso emakume eskuzaba-

la zela entzun izan dute eta gu ere saiatu gara hortik ikas- ten”. Herrian Pello Mari- ren irudia hain maitea izatea harri- garri egiten zaio barriola- tarrari, “zaila da horrenbeste urte hilda dagoen pertsonak horrelako arrastoa nola utzi zuen ulertzea”. Juana Mari- k bihotzean gordetzen ditu ar- basoak eta Pello Mari berezi- ki. “Euskara eta bertsoak amarekin lotzen zituela irudi- tzen zait niri. Neronek ere amaren pare maite dute gizon hau”.

Lehen egindako lanez gain, Teodoro Hernandorena taldeko kideek datu berriak atera izana benetan pozgarria zaio Plazaetxeberrikoari, “besteak beste, Txuri biloba- ren laguntzaz, La Platako hi- llerrian Pello Mari- ren hilobia aurkitu dute, orain artean Rosarion lurperatuta zegoela uste zenean”. Ekimenak abi- zenaren jatorria ezagutzen la- gundu diela aitortu du, “ama- ren abizena atzendu egiten denez, Pello Mari, Otaño abi- zenarekin lotu izan baita

orain artean beti. Eskerrak eman nahi dizkiet Teo- doro Her- nandorena taldeko kide- ei. Egin dute- na ez dago ordaintze- rik”.



Senitartekoak irrikaz daude maiatzaren Diasporatik Zizurkilera etorriko diren Pello Mari- ren bilobekin berriro elkartzeko

SAHATSA

Belardenda eta dietetika zentrua

KONTSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 13
Tel.: 943 694 063
Villabona

Errota Kalea, 5
Tel.: 943 694 279
Villabona

Obrak maiatzetik aurrera

Uraren **hoditeria** berritzea, pilotalekuaren ondoan **komun publikoak** egitea, haurren **parke berria** eraikitzea..., lanez josita egongo da Larraul datozen asteotan.

Ur sareak buruhauste asko sortu ditu azken urteotan Larraulen. Gertutik eza-gutzen du arazoa Xabier Mujika alkateak: "Gaur egun-go ur sarea oso zaharkituta dago eta oso maiz izaten ditugu ur galerak. Herriko plaza inguruko ur sarea berrituta dago; etxebizitza berriak egin zirenean hoditeria berria sartzeko aprobetxatu baitzen. Orain, sarea-ren beste zati handi bat berrituko dugu; ur depositutik plazaraino datorrena eta zenbait baserrietara doan hoditeria".

Urte amaiera arte

300.000 euroko aurrekontua dute lanek. "Dirulaguntza onartu digute, proiektua ere landuta dago eta laster, lanak egin behar dituen enpresa kontratatzeko plegua prestatu eta lehiaketara aurkezteko epea zabalduko dugu. Uda aurretik hasiko dituzte lanak eta eguraldiak laguntzen badi, urtea amaitu aurretik bukatzea espero dugu. Herritarrei ahalik eta eragozpenik txikiena eragiten saiatuko gara; lursailen jabeekin bilduko gara beharrezko informazio guztia banatzeko eta ur mozketak egin baino lehen herritarrei jainaraziko zaie", azaldu du Xabierrek.



Haur parkea eta komun publikoak

Maiatzean hasiko dira herrian egin beharreko beste bi lan ere. Batetik, **Urbeltz plazan** haurrentzako parke berria egingo da eta bestetik, pilotalekuaren alboan komun publikoak egingo dira.


Urbeltz plazako belazearen albo batean egingo dute haurrentzako parke berria: "Bigune ezberdin izango ditu; bi eta sei urte arteko haurrentzako jolasak izango dituen eta seitik hamabi urte artekoentzako jolasak hartuko dituen beste bat. Orain arteko parkeko lurzorua ez zen egokia eta oraingoak, legez onartutako lurzorua izango du". Hilabete inguru iraungo dute parkea atontzeko lanek. "60.000

euroko aurrekontua du parkeak eta Landagipuzkoa programaren baitako dirulaguntzari esker egingo dugu", gaineratu du alkateak.

Komun publiko berriak ere eraikiko dituzte uda baino lehen: "Antton Amonarriz **Kultur Etxean** egindako komunak eskolako haurrek erabiltzen dituzte eta herriari zerbitzu hori eman nahi genion. Pilotalekuaren albo batean egingo dira komun berriak. Herritarrei ez ezik, Hezkide eskolara etortzen diren haur eta gazteei ere zerbitzua emango die komun berriek", adierazi du Xabierrek. 25.000 euroko aurrekontua dute komunak eraikitze-ko lanek eta estatuak Udalei bideratutako dirulaguntzekin egingo dituzte.

Plan orokorra, aurrera

Herriaren etorkizunari begira jarrita daude dagoeneko Larraulgo Udalean. Hainbat hilabete darabate Plan Orokorra aztertzen. Hala azaldu du Xabier Mujika alkateak:



"Etorkizunean nolako herria izan nahi dugun pentsatu behar dugu. Horretarako zenbait herri bilera egingo da, larrauldarre euren iritzia emateko aukera izan dezaten.

Etxebizitzak, zerbitzuak, aktibitate ekonomikoak..., eta beste hainbat arlo dira aztertu beharrekoak. Legegintzaldia amaitu arteko lanik handiena izango da Plan Orokorra prestatzea".

Plan Orokorrari behin betiko onarpena eman aurretik, pauso asko eman behar izaten da. "Lehendabizi gaur egungo egoe-

raren diagnosia egiten da, ondoren Plan Orokorraren aurrerapena garatzen da, behin-behineko onarpena ematen zaio..., zenbait urtetako lana izaten da behin betiko onarpena ematea. Larraulgo herriaren diagnosia eta Plan Orokorraren aurrerapena egiteko lantalde bat kontratatu du Udalak eta laster hasiko dira lan horiek egiten", jakinarazi du Xabier Mujikak.

Etxeko zerbitzuak

Aitzbeltz

Elektratresnak [ANDOAIN]
Arteta, 1 eta 3. 943 591 226

Joseba altzariak

Somierak, koltxoak [ANDOAIN]
Kaletxiki, 6. 943 590 761

J.J. CENCILLO

MOTA GUZTIETAKO MARGOGINTZA



Fatxadak berritzeko lanak
Pinturak orohar
Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Extremadura, 14 - 20140 ANDOAIN
943 590 689 - 699 386 976



• Dekorazio pinturak
• Birgaitze lanak
• Lakatuak
• Paperezatuak
• Fatxadak

943 690 568

Larrea 17, behea
Amasa-Villabona
Zubixiki ind., 4 Aduna

Amonarriz Iturgintza, S.L.

Iturgintza, gasa, herogailuak, petroleogaien hornidura

Ugalde etxea, 6. eskuina - Larraul
943 693 963 • 607 186 877

Pintura industrialen erabilera Goiatz

• Burnia • Hondar
• Birgaitze lanak • zorrotzadaz
• Fatxadak • harri garbiketa

Errota 6, 2.ºz.
Amasa-Villabona
943 693 101 - 609 143 713

Merkatu txikia

Garage itxi bat alokatzen da Andoain, Txitibar plazan 2 zbkia (18m²). Telefonoa: 680 348 212.

Andre gazteak lana egingo luke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanetan laguntzen. 943 653 099, 655 745 512.

Autoa aparkatzeko marra alokatzen da Etxeberrieta plazan (etxe urdinaren atzean). Harremana: 676 645 281.

15.000 m²ko lursaila alki-lerrean jarriko nuke, Tolosaldean. 663 838 533.

Erosi, saldu, aldatu, lan eskaintzak eta proposamenak..., tarte dohainik.

diseinua@aiurri.com
helbidera mezua bidali

943 300 732 telefonora deituta

Jose Ramon Amondarain andoaindarra **arte garaikidearen** munduan murgilduta dabil gaztetandik. Ergobiako bere arte estudioan eman du bere ibilbidearen berri.



Hamar urte zituenean murgildu zen Jose Ramon Amondarain marrazki eta margolanen munduan eta geroztik ez du inoiz utzi.

Jose Ramon Amondarain

margolaria

Nolatan murgildu zinen arte munduan?

Beti esaten dut inbidiagatik hasi nintzela. Nire aitak oso esku ona zuen; egur tailak eta margolanak egiten zituen. Margo haiek bezalakoak egin nahi nituen neronek ere, eta horregatik hasi nintzen margotzen. Ume-umetan ez nuen oso esku ona, baina hamar urte inguru nituenean asko marrazten hasi nintzen, denbora asko pasatzen nuen horretan. Geroztik, ez dut besterik egin; horretatik bizi naiz.

Artean lan egiteko, beharrezkoa al da Arte Ederrak ikastea?

Nik hala gomendatzen diet gazteei. Egia esan, Bilboko fakultatera karrera ikastera joan eta astebetera, uzteko asmoa izan nuen; nik uste nuen hara joan eta jenio pila bat aurkituko nuela, baina ez zen horrelakorik gertatu. Artearen ideia erromantikoa eta bokazioa banituen, baina ez nekien ezertxo ere artearen inguruan. Karrera amaitu ondoren, argi daukat merezi izan zuela. Irakasle on bakar batek

erakutsi dezakeenak bakarrik, guztia konpentsatzen du. Gainera, mundu berdinean dabilen jendearekin harremanetan egiteko aukera ematen dizu karrerak eta horrek, arte garaikidea ulertzen laguntzen dizu.

Nolakoak izan ziren arte munduan emandako lehen pausoak?

Ez ziren errazak izan, baina egia esan nahiko zorte ona izan nuen. Askotan ibili izan naiz diruz estu samar, baina beti sortu zait irteeraren bat itotzerainoko egoerara iritsi

Soslaia

- **Jaioterria:** Andoain
- **Ikasketak:** Arte Ederrak Bilboko fakultatean.
- **Lanbidea:** Margolaria, arte garaikidea
- **Arte estudioa:** Ergobia, Astigarraga.
- **Bere lanak ikusgai:** Artium (Gasteiz), Reina Sofia museoa

(Madril), Marcelino Botin fundazioa (Santander), La Caixa fundazioa (erakusketak ibiltaria), Peter Stuyvesant Foundation (Amsterdam), etab.

- **Hurrengo lanak:** Bilboko Alondegiaren inaugurazio ekitaldirako lana.

an oso zaila ikusten nuen honetatik bizitzeko aukera edukitzea. Dagoeneko 46 urte ditut, baita familia ere, eta orain arte ez dut inoiz lanbidez aldatu beharrik izan.

Artista batentzat, beharrezkoa al da kanpora ateratzea?

Hori norberak ikusi behar du. Lanerako, nik neronek ez dut kanpora joateko beharrik sentitu. Lanean ari naizenean margotzen pasatzen dut eguna eta hori berdin-berdin egin dezaket Madrilén, Japonen edo Berlinen. Ez dut gehiegi ikasten tokietatik. Beste alde batetik, artea ikusteko eskaintza zabalagoa izan daiteke Berlin, Londres edo beste hiri batzuetan baina horretarako, nahikoa da hegazkina hartu eta egun pare bat han pasatzea.

Margolanak egiten dituzu batik bat. Nola definituko zenuke zure lana?

Oso zaila da arte garaikidearen definizioa egitea. Antzina, pintura oso gauza zehatza zen, diziplina itxi bat. Margo-

aurretik. Lehiaketak, bekak, erakusketak..., artetik bizitzea lortu dut eta hori izugarritzko zortea da niretzat. Nire belau-naldikook **Artelekun** lan egiteko aukera izan genuen gazetetan. Mugimendu handia zegoen Artelekuren inguruan; lanerako eta ikasteko gogo handia. Oso aberasgarria izan zen hura nire adin inguruko jendearentzat. Ziurrenik, Arteleku gabe, ez ginateke izango orain garena.

Nahi dudana, gehien gusztatzen zaidana egiten pasatzen dut eguna eta hori ezin da diruz ordaindu. Hasi nintzene-



Nire gogoetak gauza fisiko bihurtzen ditut, baina gauza bera ez da helburua

lariak bazuen bere testuingurua: lientzoa, papera, tela, oleoa, tinta, arkatzak... Muga horiek ito egin zuten pintura eta aurrera jarraitzeko, mugak hautsi egin ziren. Adibide baten bidez azaltze aldera; Koldo Mitxelenan egindako erakusketa batean argazkigintza eta pintura nahasten nituen. Cindy Sherman argazkilariaren txuri-beltzeko argazkiak bildu eta margotu egin nituen, koloreak asmatuz. Margolan horiek ordenagailuan sartu, margoaren arrastoa kendu, eta argazki bihurtu nituen berriro ere. Argazki izatetik argazki izatera itzuli ziren, baina pinturatik pasata. Ikusleari zerbait kontatzea baino, pinturaz beraz hitz egitea zen helburua. Kontrakoa ere egin izan dut: pintura ezkutatu, irudi bat erakusteko. Gauzak nola ikusten diren garrantzitsua da niretzat: pintura eta ikustearen arteko zerbait bilatzen dut.



Nolakoa da artelan bat sortzeko prozesua?

Oso garrantzitsua da lanerako modu egokia bilatzea; bestela, noraezean geratzeko arriskua izaten dugu. Nire lanerako modua etengabeko bilaketa da. Collageak egin, materialak nahastu, letrekin jolastu..., bide ezberdinak irekitzen ditut etengabe, eta sortzen ditudan elementuak estudioan barrena uzten ditut, haziak balira bezala. Ez dut zehatz-mehatz jakiten hazi horiek zertan bilakatuko diren, baina hortxe egoten dira, bilakaeraren zain. Zerbaitetan lanean ari naizenean, egiten ari naizen horrek garrantzia galtzen du niretzat; egindakoa egina dago, zerbait da eta hor dago. Garrantzitsuagoa da egiteko daukazuena, bilatuko duzuna, zure zain dagoena.

Zein material erabiltzen duzu gehienbat?

Interesatzen zaidanaren arabera, erakutsi edo bilatu nahi duanaren arabera aldatzen joaten naiz, mugarik gabe. Pintura fisifikatu ere egin izan dut: pintura geruzak pirlatzen

joanda sortutako formak egin ditut.

Collagea egitea ere gustatzen zait. Lanerako modu azkarra da eta oso erabilgarria; pentsatzen laguntzen du. Bi elementu elkartzen dituzun momentuan beste gauza ezberdin bat sortzen da. Gauza berri hori norbaiti ikustaraztea oso interesgarria da.

Andoaindarra izanik, zer iruditzen zaizu Bastero Kulturgunearen erakusketa eskaintza?

Programazio txukuna antolatzen dela esango nuke. Ez ditut Basteroko barrenak ezagutzen, baina pentsa dezaket ez dutela dirutza handiegirik izango gauza horiek antolatzeko. Basterok herriko kultur mugimenduaren zatirik handiena biltzen du bere baitan eta hori oso garrantzitsua da.

Nola ikusten duzu artista gazteen egoera?

Oso egoera zaila dutela esango nuke. Oso zaila da zirkuituan sartzea. Galeriek ez dute gazteen aldeko apusturik egiten. Azken urteotan, galeria izatetik arte objektuak saltzen dituen denda izatera pasa dira. Guztiek esaten dute artearekin konpromisoa badutela, baina jende ezagunaren artelanak besterik ez dituzte nahi eta gazteek ez dute irteerik bilatzen. Merkatuaren legeak agintzen du. Hala ere, abantaila nagusi bat dute gazteek eurekin: etorkizun guztia du-



Arte garaikidea ez da erraza, ez da kontsumo azkarreko produktua eta jendeak ez du zailtasunik nahi


tela aurretik. Denbora gutxian gauzak asko alda daitezke, batek daki.

Kaleko jendeak ulertzen al du arte garaikidea?

Orokorrean ez. Jendeari ez zaio interesatzen eta jarrera ezkorrearekin sartzen dira erakusketak ikustera. Arte garaikidea ez da erraza, ez da kontsumo azkarreko produktua eta jendeak ez du zailtasunik nahi. Artea egiten dugunean ikuslearekiko konpromisoa dugu, berarentzat egiten dugu; baina ezin diogu gure arteari balioa kendu errazagoa egiteko. Beharrezkoa da artearen kultura sortzea.

Orokorrean, jendeak uste du artistok gauzak egiten ditugula, artelanak egitea dela gure helburua. Baina ez da horrela. Nik pentsatu egiten dut eta gogoeta hori gauza fisiko bihurtzen dut, baina gauza bera ez da helburua. Horregatik guk ez diogu horrenbesteko garrantziarik ematen egindako gauzari. Nire margolanik onena iristeko dagoela sinisten dut: egindakoa egina dago eta ez du bueltarik; onena beti dago etortzeko.

BATXILERGOAK



LEIZARAN
INSTITUTUA

BATXILERGOAK ETA GOI MAILAKO GIZA INTEGRAZIO ZIKLOA

- Batxilergoak: zientifiko-teknikoa, humanistikoa
- Goi mailako Giza Integrazio Zikloa
- A eta D ereduak (euskara eta gaztelera)

Plazaola kalea, 23 - Andoain
943 300 078 - www.leizaran.net
iesandoain@euskalnet.net

Euskararen alde lanean



Nora Urbizu, Usoa Elustondo eta Xabat Laborde Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide dira Amasa-Villabonan. Euskararekiko euren ikuspegia eta asmoen berri eman dute.

Azalduko al diguzue taldearen sorreraren nondik norakoa?

Xabat Laborde: Duela pare bat urte sortu genuen taldea herrian. Hasieran bi lagun genbiltzan, baina neroni ere kanpoan ari nintzen ikasten eta ez genuen gauza gehiegirik egiten. EHEko kanpainak herrian islatzen saiatzen ginen, baina denboraz larri genbiltzanez, herriari begirako ekimenik martxan jartzeko gai ez ginen ikusten. Gure nahia taldera jende gehiago biltzea zen eta antolatu genuen hitzaldi baten harira animatu ziren Usoa eta Nora ere.

Azken urtean, hainbat ekintza burutu duzue...

Usoa Elustondo: Euskararen inguruan biltzen garena herritarrei ohartarazteko hainbat ekintza egin dugu. Tartean, Garagardo Azokan esku-orriak banatu genituen aurkezpen modura. Santio jaietan Koadriren egunean jolas bitxia burutu genuen Etxe-Ondon.

X.L.: Jaietako azken eguneko kontzertuekin batera ere hainbat ekintza aurreikusita geneukan jaia eta euskararen aldarrikapena uztartuz, baina egun hartako gertaeren ondorioz, bertan behera utzi genuen asmoa. Egun hartan hasitako graffitia azaroan amaitu genuen, hamaiketako eginez.

Nora Urbizu: Garagardo Azokan erantzun ona izan zuen esku-orriak. Gero ez zen inor animatu bileretan parte hartzera, baina jendeak informazio hura gustura hartu zuela uste dut.

Nola ikusten duzue euskararen presentzia eta erabilera Amasa-Villabonan?

N.U.: Nik behintzat EHEn hasiteko erabakia hartu nuenean nahiko triste ikusten nuen egoera. Herrian gehiago egin eta eska zitekeela iruditzen zitzaidan, eta ez euskaldun berrien artean bereziki. Gure artean euskararekiko ilusio falta sumatzen genuen.

U.E.: Lehen euskararekiko kon-

≡
Herriatik herrira
eginiko festa antolatu
dugu eta herritarrek
parte hartzera
animatu nahi ditugu

tzientzia handiagoa zegoela uste dut, orain galdu egin dena. Garai batean euskararen alde izugarritzko festak egiten ziren, beharra ikusten zelako. Gizarteko testuingurua ezberdina izango zen, baina zerbaitek aurrera egin dezan indarra izatea polita eta beharrezkoa da.

X.L.: Lehen zegoen euskararen aldeko grina galdu egin da jendearen artean. Kontzientzia falta izugarria dago, gazte jendearen artean batik bat. Gure adineko jende euskaldun askok, txiki-txikitatik euskaraz ikasi duenak ere, oso erraz jotzen du gaztelaniara. Datuetan argi ikusten da hori: Villabonako kale erabilera %42koa da eta euskaldunen kopurua %67a.

Deiren bat egingo al zeniekete herritarrei gai hori dela eta?

N.U.: Erabilera dela eta, dudarik gabe, euskaraz hitz egiteko gonbitea. Bestalde, gu bezala jende gehiagok sentimendu berdina izango du eta taldean parte hartzeko edota ideia berriak proposatzeko deia ere luzatuko genieke. Herri mailan mugimendua sortzea gustatuko litzaiguke.

X.L.: Euskara erabiltzen den zonalde batean bizi garen arren, euskararen egoera ez dela behar-lukeena jabetzea nahiko genuke jendea. Euskara hizkuntza

Maiatzak 8, larunbata


Euskararen alde, egun osoko jaia

- Diana buruhandi eta erraldoekin.
- Haur krosa (eurek marraztutako petoekin).
- Oinkari eta Loatzo taldeen emaldia.
- Zumbeltz elkarteak prestatutako bazkaria Amaia Agirre, Unai Muñoa, Ainhoa Agirreazaldegia eta Ander Lizarralde bertso-lariek. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- Poteo-kalejira.
- Afaria Onddo Gazte Asanbladaren eskutik.
- Kantuki taldearen dantzaldia.

“Herriatik herrira eginiko festa antolatu dugu eta herritarrek parte hartzera animatu nahi ditugu. Mila esker egun hori antolatzen lagundu diguzuen talde, elkarte eta ikastetxe guztiei”.

gutxitua da eta oraindik ere lan handia dago euskararen balizko normalizaziora iristeko. Orain gainera, politikoki ere euskararen normalizazioaren aurka doazen neurriak hartzen ari dira. Ondorioz, hezkuntza mailan lan handia egin den arren, jendeak ez dezala pentsa dena egin da dagoenik.

U.E.: Nik kontzientzia azpimarratuko nuke behin eta berriz, euskaraz hitz egitea bigarren mailako gaitzat hartzen baita egun. Kontzientzia hori bul-tzatzeke, euskararen aldeko jaia antolatu dugu maiatzaren 8an.



kutxa
zer nahi duzu bihar?

Herriarteko pilota txapelketa abian

Hasi berri da oihartzun handia hartu ohi duen Gipuzkoako Herriarteko esku pilota txapelketa. Amasa-Vilabonako taldea ere tartean da, beste talde ugariarekin batera.

Kadete, jubenil eta nagusien mailan jokatzeko den Herriarteko pilota txapelketak aurtengo lehen pausoak eman ditu. Amasa-Vilabonako taldeari Albizturko taldearen aurka egokitu zitzaion joaneko lehen partidak jokatzeko. Apirilaren 16an Behar-Zana pilotalekuan aritu ziren; gustura, partida bakarra irabaztea lortu bazuten ere. Kadeteek galdu egin zuten (5-22),

Kadeteetan eta jubeniletan maila polita daukagu, seniorretan egiten dugu huts

jubenilek irabazi (22-2) eta nagusiek ere galdu (9-22). Itzuliko partidak apirilaren 25ean jokatuko dira Albizturko pilotalekuan, 11:00tatik aurrera.

Une honetan Amasa-Vilabonan eskuz jolasten duten pilotariak ondorengo hauexek dira: Kadeteen taldean Iñaki Otaegi 'Gibitegi', Ander Nazabal, Mikel Otaño eta Aitor Ormazabal 'Artzaia'. Herriarteko

Pilotariak, Amasako pilotalekuan entrenatzen.

lehen buruz burukoan azken bi pilotariek hartu zuten parte. Jubenilen artean, Kepa Nazabal, Asier Arrue eta Beñat Carrera biltzen dira, azken biek jokatu zutelarik lehen partidari. Nagusien mailan, berriz, Arkaitz Arretxe eta Iñaki Lizaso.

Aurten bai

Amasa-Vilabonako taldeak ez zuen iazko edizioan parte hartu, baina aurrez aritu izan da Herriartekoan, "beti nahiko larri ibili izan gara taldea osatzeko. Beste herri batzuetan bezala ezin izan dugu kategoria bakoitzean, -bere aurrelari eta atzelariek-, taldea ondo osatu. Ahal den bezala atera izan gara". Aurten berriz ere parte hartzea erabaki dute eta lehen kanporaketan arerio gogorak egokitu bazaizkie ere, ahalegindu egingo direla adierazi du Iñaki Lizaso pilotariak. "Albizturren aurka jokatzea egokitu zaigu, talde beneratzen gogorra. Baina ahalegina egingo dugu guk ere: kadeteetan eta jubeniletan maila polita daukagu, seniorretan egiten dugu huts; izan ere, Arkaitz eta biok aurrelariak baikara. Zaila izango da itzulikoetan

Osasuna eta estetika gida

BELKOAIN

Fisioterapia zerbitzua

Saioa Audikana Ansa

Aitor Sarasola Astigarraga

Eskola kalea, 6-atzealdea 8. lokala
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tel-Faxa: 943 591 202

ARJINDU
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

943 69 31 13

Errota, 7-behea 20150 Villabona

COEG Jose Luis Oyarzabal

ESTOMATOLOGO MEDIKUA
KOLEG. 303

Juan Bautista Erra, 8-1. ANDOAIN
Tel.: 943 593 686 - Faxa: 943 579 657

FISIOTERAPIA
PILATES ZENTROA
LUR
Ixar Igerategi Lizarribar

Denak pol. zb. 207 ANDOAIN
Tel.: 943 592 851 - 605 763 940

Jar ezazu zure
publizitatea hemen
publizitatea@aiurri.com
Fer: 605 718 041

aurrera egitea, baina oraindik ez dago dena galduta". Kategoriak ez, herria hartzen da kontuan Herriarteko txapelketan; partida gehien irabazten dituen taldeak egiten du aurrera, beraz. Animo bigarren bueltan!

Beterriko Liburua Literatur Aipamena, Amasan

Maiatzaren 6an, ostegunarekin, Beterriko Liburua Literatur Aipamena-ren hamalagarren edizioa izango da. Lekuari dagokionez berrikuntzarekin etorriko da aurtengoa: **Amasako Kultur Etxean** burutuko baita lehenengo aldiz, 19:30etatik aurrera.

Ohi denez, urtebeteko literatur uztan

euskaraz kaleratutako libururik gogokiena sarituko da, irakurleek hala erabakitako. Oraingoan, beraz, 2009 urteko liburuaren artean irakurleak gehien asebeteko duenari emango zaio saria. **III Akademiako hideoek** dagoeneko egin dute euren aukera. Hiru bozketa txandaren ondoren, **Iraiti Jimenez**en *Nora ez dakizun hori* eta **Ain-**

geru Epaltzaren *Izan bainintzen Nafarroako errege* liburuek eskuratu dituzte boto gehien. Bi idazle horietakoren bat Amasan izango da eta ekitaldiaren amaieran, hizketaldia eskainiko du. Urtero legez, hitza eta musika uztartuko dira aurten ere. Esan beharrik ez, etorri nahi duzuen guztiontzat ateak zabalik egongo direla.

Javi Penas

Sukaldaria eta irakaslea

Pasa zen ostegunean hasi zen sukaldaritza ikastaroa Lizardi etxean. **Olentzo** jatetxeko Javi Penas sukaldaria da ikastaroko irakaslea.

Nolako ikastaroa da eskaintzen duzuna?

Oinarrizko sukaldaritza erakusten dut, gauza berriak egiten erakutsi nahi dut, baina zailtasun handiegirik gabe. Ostegun arratsaldetan, bi orduz aritzen gara sukaldean eta bi ordu horietan hiru plater ezberdin prestatzen erakusten diet. Esaterako, lehendabiziko klasean entsalada berezi bat egin genuen, egiteko erraza, baina aldi berean ezberdina. Horrez gain, arraintentzako saltsa bereziren bat ere egin genuen eta amaitzeko, gazta tarta egiteko modu ezberdinak ere azaldu nizkien; bai labea erabiliz, baita laberik gabe ere. Ikastaroa aurreratzen doan heinean, jendearen eskaerei ere erantzun diet. Plater bereziren bat prestatzen ikasi nahi badute, azken asteetan izango dugu horretarako tarte.

Nola antolatzen zara sukaldean aritzearekin batera azalpenak emateko?

Lizardi etxeko sukaldea nahiko txikia denez, taldeari bizkarra emanez aritu beharra izaten dut sukaldean, horregatik, astero bi pertsona niri laguntzen aritzen dira. Bi ikasle horiek bertatik bertara ikusten dute egiten dudana eta gainerakoek, azalpenak entzuten dituzte. Bi

taldekideek, prestatutako platerak etxera eramateko aukera izaten dute emandako laguntzaren truke. Astero txandatu joango gara, guztiek aukera berdina izan ditzaten.

Zein da ikastaroaren helburu nagusia?

Ikastaroaren helburu nagusiak elkarrekin sukaldean aritzea, guztiok ikastea eta ondo pasatzea izango dira. Norbaitek izena eman nahiko balu, zabalik dauka horretarako aukera, nahiz eta ikastaroa hasita dagoen. Nire erronka nagusia, berriz, gauzak ahal den eta modurik garbienean azaltzea da. Askotan, sukaldariok bada-kigu plater bat noiz dagoen labetik ateratzeko puntuan, baina ez dakigu besteei azaltzen puntu hori nola harrapatu.

Nola sortu zen ikastaroa emateko aukera?

Oso modu naturalean sortu zen. Nazioarteko Emakumeen Egunean Asteasuko emakume talde bat Olentzo jatetxera etorri ohi da bazkaltzera. Ainhoa Etxabe Kultur teknikaria ere bertan zen eta hizketan ari ginelarik, ikastaro bat antolatzearen aukera aipatu genuen. Niretzako esperientzia berria izango da. Egunerokotasunetik atera eta gauza ezberdinak egiteko



Sukaldaritza ikastaroa

- **Irakaslea:** Javi Penas.
- **Non:** Lizardi etxeko sukaldean.
- **Noiz:** Ostegunetan, 14:30etatik 16:30etara.
- **Iraupena:** Apirilaren 15ean hasita, hamar astez.

aukera izatea oso aberasgarria denez berehala animatu nintzen.

Nola eta noiz murgildu zinen sukaldaritzan?

Mundu horretara bideratu nituen ikasketak eta ondoren, praktikak egin nituen hainbat jatetxetan: Akelarre, Hidalgo, Casa Tiburcio, Mendizorroztz... Hemendik kanpora ere ibili izan naiz lanean; Katalunian esaterako. 1998an hasi nintzen lanean Olentzo jatetxean eta duela bi urte nik hartu nuen bertako martxa Izaskun Gurrutxaga emaztearekin batera. Sukaldaritzan ez da inoiz ikasteaz bukatzen.



Nire erronka nagusia gauzak ahal den eta modurik garbienean azaltzea da

Javi Penas Olentzo jatetxearen atarian.

Ikastaro ezberdinak egin izan ditut, beti dagoelako zer ikasia. Plater berdina hoge modu ezberdinetan presta dezakezu, eta guztiak oso goxoak. Asko ikasten da jendearekin hitz egiten, ideiak berritzen laguntzen dizu eta hori etengabeko prozesua da. Ziur nago Asteasuko ikastaro honetan ere asko ikasiko dudala.

Nolako sukaldaritza eskaintzen duzue Olentzo jatetxean?

Sukalde tradizionala egiten dugu batik bat, gure bezero gehienek hori eskatzen dutelako. Eguneroko menuekin lan handia egiten dugu eta asteburuetan familia osoak etortzen dira, umeekin. Orokorrean, hona etortzen denak ez du berrikuntza handiegirik nahi izaten. Hala ere, beti saiatzen gara aukeren artean gauza berezixeagoak ere sartzen.

JOSEBA

altzariak

- Somier elektrikoak
- Latexko koltxoak
- Altzari osagarriak

Kaletxiki, 10 - ANDOAIN • Tel.: 943 590 761 • Faxa: 943 303 005

BENITO

HARATEGIA-URDAITEGIA

Arroa Kalea, 4 ☎ 943 691 350 VILLABONA

Gorostidi Harria, igandean

Nolako froga ikusiko du apirilaren 25ean Adunara hurbiltzen denak?


Aurten berrikuntza nagusi bat ekarriko du jaialdiak. Orain arte, 185 kiloko harri zilindrikoa izaten zen protagonista, baina azken edizioetan jende gutxi animatu da harri hori altxatzea eta aurten, aldatzea erabaki dugu. 150 kiloko erabiliko dugu lehia nagusirako. Harri-jasotzaile izan nintzen garaian, 23 altxaldi eman nizkion harri hari esku bakarrez, ordu erdiko saioan. Harrijasotzaileak bi taldetan banatuta arituko dira; 80 kilotik beherakoek bi eskuekin egingo dituzte altxaldiak eta pisu horretatik gorakoek esku bakarrarekin.

Zein harrijasotzaile gerturatuko da Adunako saiora?

Laurogei kiloz azpikoen artean, Telleria anaiak eta Urrutia etorriko dira eta laurogei kilotik gorakoen artean, Irigoien eta Ostolaza. Bakoitza bere mailan lehiatuko da, baina sari bereziak ere jarri dira; batetik, laurogei kilotik behera pisatu eta 150 kiloko esku bakarraz altxatzen duenari eta bestetik, laurogei kilotik gorakoek 185 kilokoari altxaldi bakarra emateagatik ere sari berezia jasoko dute.

Harrijasotzaileen lanaz gain, beste hainbat bereizgarri ere izango du aurtengo jaialdiak...

Aizkolarien lanaz gozatzeko



Igandean, arratsaldeko 18:00etan, hasiko da Gorostidi Harria herri kirol jaialdia. **Joxe Mari Mendizabal** zenari omenaldia egiteko baliatuko dute herri kirol saioa. Iñaki Gorostidik eman ditu antolatutako jaialdiaren inguruko zehaztasunak.

aukera izango da. Olasagasti eta Azurmendi gerturatuko dira. Olasagastik zutika jarritako kanako enborra ebakiko du eta Azurmendik, berriz, taimana berekoa baina etzanda jarrita. Txingak ere plazan jarriko dira, froga egin nahi duten guztientzat. 75 kiloko txinga bereziak daude Adunaren eta horiexek eramango ditugu pilotalekura. Sariak ere prestatu ditugu.

Joxe Mari Mendizabal zenari omenaldia egingo diozue apirilaren 25eko saioan. Nolako izango da ekitaldia?

Omenaldi xumea egingo dugu. Minutuko isilunea gorde-

ko da eta bere argazkiaren ondoan lore sorta jarriko dugu. Aurrerago herri mailako omenaldi handiagoa antolatzeko asmoa badago, baina Gorostidi Harria ekitaldian ere gogoa eduki nahi izan dugu. Aurreko bi ediziotan parte hartu zuen eta aurten ere Olasagastirekin batera etortzekoa zen. Hamabost urte zituenean bere familiarekin batera Villabonara joan zen bizitzera, baina Aduna oso maitea zuen eta egokia iruditu zaigu omenal-ditxoa egitea.

Urtetik urtera indarra hartzen ari den ekitaldia da Gorostidi Harria.

Joxe Mari Mendizabalen omenez

Martxoaren 28ak albiste beltza ekarri zuen; Joxe Mari Mendizabal adunarra zendu zen Olasagastiren aurkako apustua- ren ondoren. Marka handiak egin zituen Mendizabalek herri kirol munduan. Harri-jasotzen eman zituen lehen pausoak: "200 kiloko harri kubikoa altxatzen lehendabizikoa izan zen. Garai hartan ni ere harria jasotzen nengela eta askotan egokitu zitzaigun plazetan elkarrekin aritzea. Omenaldi polita egingo diogu apirilaren 25ean", azaldu du Iñaki Gorostidik.

Hogeita hamar urterekin hasi zen aitzorren eta kirol horretan ere marka handiak egin zituen: "Kanakoen enborra ebakitzeko berak jarritako marka ez du inork hautsi oraindik. Aizkolari handia izan da". Goian bego.



Baditu bere berezitasunak; esaterako, harriak Uztartza tabernan jartzen ditugu ikusgai, parte hartzaileek eta zaletuek ikusteko aukera izan dezaten. Gainera, sarrera dohakoa da eta horrek ere jendea erakarri egiten du. **Muxril** elkarteak antolatzen du ekitaldia eta helburua ez da etekin ekonomikoa lortzea, borondatea eskatzen zaio jendeari, besterik ez. Udalak, Kelsen fabrikak eta Aranburu aseguru etxeak diruz laguntzen dute ekitaldia eta eskerrak eman behar zaizkie.

Zabala
Ordukari Bitxitegia



Kale Nagusia, 14
943 593 745
ANDOAIN

Gudari enparantza, 5
943 332 341
HERNANI

LOTUS
ORO

TISSOT

VICEROY

SEIKO

JAGUAR

AMIJOY TALDEA "mayorista"

Irakurri, Gozatu eta Oparitu

Larramendi Bazkunak, Euskara Elkarteek **Topaguneak** bideratuta, irakurketa sustatzeko ekimena aurkeztu nahi die eskualdeko irakurleei, parte hartzeko gonbitea luzatuz.

Topagunea federazioko kide diren euskara elkarteek –beste askoren artean Larramendi Bazkunak–, euskararen erabilera sustatu eta zabaltzea dute helburu eta bide horretan, ‘Irakurri, Gozatu eta Oparitu’ egitasmo berritzailea jarri dute abian, kultur kontsumo aktiboa eta plazeraren arteko harremana agerian utziz eta liburutegi, liburu-denda nahiz euskara elkarteak lankide bihurtuz. Apirilaren 23an, Liburuaren nazioarteko egunean emango zaio hasiera ekimenari eta uztailaren 23a arte luzatuko da.

Irakurketa sustatzea helburu

Egitasmoaren helbururik nagusia irakurketa sustatzea da eta Topaguneako kide diren elkarteek euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi dute. Diotenez, “egitasmo honek, kulturak eman dezakeen plazeraren aldarrikapena egiten du eta euskara bihurtzen du bi kontzeptu horien arteko lokarri”. Egitasmoaren beste helburu nagusietako bat Topaguneako bazkide diren herri eta auzoetako euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea litzateke. Gainera, elkarlana ere helburu nagusietako bat da, “zentzu horretan, ekimenean parte hartuko duten guztien arteko harremana bultzatu eta zainduko da”. Euskal idazleek sortzen jarrai dezaten sustatzeko nahiz liburuaren ekoizpena eta salmenta areagotzeko antzeko egitasmoak nahi-



Andoaingo liburutegian, euskal liburuak eskuan.



Andoain,
Amasa-Villabona eta
Asteasu egin dute
bat ekimenarekin

taezkoak direla jakinarazi dute Topaguneako kideek.

Pausoz pauso

Oso erraza eta erakargarria da ekimen berri honetan parte hartzea. Pauso gutxi batzuk besterik ez dira bete behar:

1. Udal liburutegiko euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri.
2. Liburu itzultzerakoan, liburutegian emandako fitxarria bete liburuaren inguruko hainbat galderari erantzunez. Txikienen kasuan guraso edo laguntzaile helduak bete beharko du.
3. Fitxa-orria betetakoan, liburutegian erosteko-txekia emango dio irakurleari. Txeki horrekin %25eko deskontua egingo diote eus-

Eskualdean non?

Beterri-Aiztondo eskualdean Andoain, Amasa-Villabona eta Asteasu herrietan egin dute bat ekimenarekin. Eskualdearekin lotuta, baita Urnietak ere. Ondorioz, lau herri horietako irakurleek aipatu pausoak bete ostean, ondorengo liburu-dendatan merkeago erosi

ahal izango dituzte euskarazko liburuak:

- **Andoaindarrek:** Delgado, Ernaitza eta Stop liburu-dendetan.
- **Amasa-villabonatarrek eta asteasuarrak:** Basajaun, Kazetaria eta Papertxulo liburu-dendetan.
- **Urnietarrek:** Eder liburu-denda.

Irakurzaileen erantzunaren bila

Besteak beste, Larramendi Bazkunaren baitan, Amaia Goikoe-txea aritu da Beterri-Aiztondo eskualdean ekimena abian jartzeko kudeaketa lanak egiten.

Zein harrera izan du ekimenak?

Lehen urtea izateko, harrera oso ona izan dela esango nuke. Liburu-dendetan ideia erakargarria iruditu zaie eta oso ondo erantzun dute. Baiezkoa eman duten eskualdeko Udalek ere oso jarrera ona erakutsi dute. Ikusi egin behar orain irakurzaileek nola erantzuten duten.

Nola iritsi nahi duzue irakurleengana?

Ekimenari baiezkoa eman dioten herri guztietan egingo dugu kanpainaren zabal-kundea, horretarako txartelez baliatuko gara batik bat. Hala ere, saiakera berezia egingo dugu ikastetxeetan gazteengana iristeko.

karazko liburuaren bat egitasmoan parte hartzen duen liburu-dendaren batean erostekoan.

4. Kasu honetan, **Larramendi Bazkuneko bazkide** direnek %25a beharrean, %50eko beherapena izango dute euskarazko liburuaren erostekoan. Horretarako, noski, bazkide txartela erakutsi beharko zaio liburu saltzaileari.

ARANBURU

artekaritza - Aseguruak - Aholkularitza



Kaleberria, 6 behe - Andoain
<http://agentes.winterthur.es/aranburu>
artekaritza@agencia.axa-seguros.es

☎ 943 590 814
Faxa: 943 592 403

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako
hedabidea

Duela 5 urte



Euskal astoa, Amasakoa

2005: Inaxio Mendizabal amasarrek adierazi zuenez, euskal baserrietan euskal astoak izateko ohitura galdu egin zen, "lehen saskiekin ibiltzeko edo baserrietatik kalera esnea jaisteko asto txikia behar izaten zen. Gero, ohitura horiek galtzean, astoak karroei tira egiteko erabiltzen ziren gehiago eta horretarako asto handia behar zen. Ondorioz, Andaluzia aldetik asto handiak ekarri ziren, hemengo arraza galduz". Azken urteotan, Giasel Astozaleen Elkartearen baitan euskal arraza berreskuratzen ahalgindu da. Egun ere, euskal asto mordoxka ikus daiteke Amasako zelaian.

Antzerki astea

3

Denbora antzerki taldeak jarri zuen abian Antzerki astea Zizurkilen. Ainhoa Larrea kultur teknikariak hirugarren urtea betetzea garrantzitsutzat jo zuen, ekimena bere lekua hartzen ari zelako. Aurtengoa zortzigarrena izango da, ohi denez, eskaintza zabalarekin.

Duela 10 urte



Lehen harria, Martin Ugalde Kultur Parkean

2000: Euskaldunen Egunkaria sortu zela hamar urte betetzearekin batera, Martin Ugalde Kultur Parkea abian jarri zen Andoainen; XXI. mendean euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten enpresa, erakunde eta elkarteak gunerean biltzeko asmoz. Apirilaren 7an Martin Ugalde zenak bere izena duen Kultur Parkeko lehen harria jarri zuen, garaiko alkate Joxean Barandiaran, kultur enpresen ordezkariak nahiz parkeko kudeatzaileak alboan zituela. "Iraun dezala Andoaingo euskarak Buruntzako harri tontorrakadina", adierazi zuen zendutako idazleak.

Euskara eta epaitegiak

10

1997ko martxoan Euskal Herrian Euskaraz taldeko Andoaingo sei kide epaitegietan euskararen presentzia eza salatzeke hainbat epaiketa eten zuten. 2000 urtean, hamar asteburuko kartzela zigorra betetzera zigortu zituzten. Egoera salatzeke hainbat ekimen jarri zuten martxan.

Duela 15 urte




Begoña del Valle margolaria

1995: 1993 urtean etorri zen Begoña del Valle margolari bilbotarra bere familiarekin Asteasura, Tximelane etxera. Bolada hartan altzariak berriztatzen zituen bere senarrarekin batera, hala ere, hamahiru urte zituela margotzen hasi zenetik inoiz ez zituen mihi-seak eta pintzelak baztertu, horixe baitzen bere benetako zaletasuna. Arte figuratiboarekin ekin zion, buruz margotzen hasi zen arte. Surrealismora jo zuen ondoren eta espazio eta hutsarteetan aurkitu zuen inspirazioa geroago, ilargiko paisaiak gogorarazten zituzten margoetan.

Danbor joleak kaleetan

200

Andoaingo Santakruzetan, 200 andoaindarek baino gehiagok hartzen zuen parte hiru danborradatan: Santa Krutz Peña, Zumeata-rra eta Amnistiaren Aldeko Batzordekoak. Urteak atzera, danbor joleak adineko gizonak ziren gehienbat, orduan jende gaztea zen gehiengoa.



aldama_tapia
aholkularitza

Txitibar plaza, 3-behea

Tel.: 943 594 476

943 300 167

20140 ANDOAIN



**FEDEROPTICOS
ORTE**

Nagusia 9. ANDOAIN. 943 591 817
orte@euskalnet.net | www.federópticos.com

20 URTE
ZURE BEGIAK
ZAINZEN

IKUSMEN AZTERKETAK

IKUSMEN TERAPIA

— BEGI ALFERRA, ESTRABISMOAK, IKASKETA ARAZOAK

UKIPEN-LENTEAK

— (ORTOKERATOLOGIA)

— ENTZUTE-BERREZIKETA



Odol-emaileak

ANDOAIN

- Maiatzak 11, asteartea
Ambulatorioa.

AMASA-VILLABONA

- Apirilak 30, ostirala.
18:30-20:30. Ambulatorioa.

Mendizaletasuna

ESKUALDEA

- Erniozaleak taldearen VII.
Ernioko ibilaldia, Bidegoianen
hasi eta bukatuta.
Maiatzak 9, igandea.

ANDOAIN Euskalduna

- Karrantza-Armañon (854)-
Ranero (729)-Ranero kobak.
Apirilak 25.
- Antoñana-Soila (990)-Korres-
Mantxibio (937)-Apiñaniz.
Maiatzak 9, igandea.
- **HAURREN IRTEERA**
■ Opakua-Legaire-Iguaran.
Maiatzak 16, igandea.

AMASA-VILLABONA Aizkardi

- Lescun-Hiru Erregeen Mahaia
(2448m)-Linza.
Linza-Petretxema(2366)-Lescun.
Maiatzak 8-9.

ASTEASU Sagain

- Jaizkibel kostaldetik.
Maiatzak 16, igandea.

Musika

ANDOAIN

- **Basterock gauak 3.**
Bill Kirchen-en kontzertua.
Apirilak 30, ostirala. 22:30,
Bastero. 10 euro.

Aisia

ZIZURKIL

- Apirilak 23: **Futbol partidak**
17:15etik aurrera Villabonako
Arroa plazan.
- Apirilak 28: **Dantza lehiaketa**-

Andoain, Amasa-Villabona

Dantza

ANDOAIN

ANDOAIN DANTZAZ EKIMENA

- Dantzaz konpainiaren **1.01** ikuskizuna.
Apirilak 23, ostirala. 20:30, Bastero.
Sarrera: 10 euro.

■ Urki dantza

taldearen emanaldia.

Apirilak 25, igandea. 12:00, Bastero. Doan.

■ Dantzaren Nazioarteko eguna.

Azelain ballet taldea eta Txiki Band taldea. Apirilak 29, osteguna.
18:30, Bastero. Doan.

AMASA-VILLABONA

- Auresku eta Soinu Zahar txapelketa.
Oinkari dantza taldearen eskutik.
Apirilak 24, larunbata. 18:00, Gurea antzokian.



rako prestaketa lanak. Ondoren,
mahai jokoak.

- Apirilak 29: Zizurkilgo
Urkamendira txangoa eta
merienda. Ondoren, brikolajea.
- Apirilak 30: **Futbol partidak**
17:15etik aurrera Villabonako
Errebote plazan.

Irteera

LARRAUL

- Larraingo maskarada ezagutze-
ra txangoa. Apirilak 23-25.

AIZTONDO

- **Jubilatu**entzat irteera Iruñara.
Apirilak 28, asteazkena.
Larraul, 08:00. **Zizurkil**, 08:30.
Aduna, 08:45.
Prezioa: 26 euro bazkari eta
guzti.

Zinema

ZIZURKIL

- **Film laburren zirkuitua**,
Larramendi Bazkunaren eskutik.
Apirilak 23, Atxulondo. 20:30.
Ahate Pasa (2009-Koldo

Almandoz). **Amona Putz!**
(2009-Telmo Esnal). **Clark eta**
Boris (2009-Jose Luis Barredo,
Iñigo Garcia). **Esaiok** (2009-
Arkaitz Bastera). **Nora Zoaz**
(2009-Josu Bergara, Iñigo
Sanz). **Odisea Etxaldean**
(2008-Urko Mauduit, Ioseba
Salaberri). **Zorion Hutsa**
(2008-Estibaliz Ariz, Itziar
Faido, Janire Fernández,
Vanessa Martín, Gorka Montiel,
Malen Ulazia).

AMASA-VILLABONA

HAURRENTZAT

- **Como entrenar tu dragon**:
Apirilak 25, igandea. Gurea.
17:00.

HELDUENTZAT

- **Millenium 3**: Apirilak 23, 24,
25 eta 26. Gurea.

Lasterketa

AMASA-VILLABONA

- **Loatzora igoera**-jaitsiera.
Apirilak 25, igandea. 10:30 Uxo
Tokitik. Izen-ematea: 09:00-
10:15, Uxo Toki.

Hitzaldia

AMASA-VILLABONA

- Gipuzkoako **Itxaropen Telefo-**
noaren inguruko hitzaldi-
solasaldia. Lorena Pidal Roa
psikologoaren eskutik.
Apirilak 29, osteguna. Udaleko
balio anitzeko gela. 18:30.

Antzerkia

ANDOAIN

- Esther Poveda, **Mujeres solas**.
Apirilak 29, osteguna.
Ganbara taberna, 22:30.
Itzala, 19:30.
- May Gorostiaga,
Presente!!!
Maiatzak 15, larunbata.
22:00, Bastero Kulturgunea.

ZIZURKIL

VII. ANTZERKI ASTEA

- Apirilaren 24tik 30era.
Haur nahiz helduentzat.
Ikus egitaraua kontrazalean.

Ospakizuna

ESKUALDEA

- Aiztondo bailarako **presoen**
senide eta lagunek Aiztondo-
ra! eguna antolatu dute.
Apirilak 24, larunbata.
Hainbat ekintza izango da egun
guztian zehar Villabonako
Errebote plazan:
Diana, liburu aurkezpena, herri
kirolak, bazkaria, ikuskizunak,
emanaldiak...

ZIZURKIL

■ Andatza eguna.

Herri kirolak, haur jokoak,
hamaiketakoak, etab.
Maiatzak 2, larunbata.

Tutoritza

ZIZURKIL

- KZ Guneako tutoritza, apirilaren
28an: 09:00-13:00.

Janari Denda
Pepi
Etxeko Barazki
eta Fruituak
Berria, 56, 21 - Billabona ☎ 943 691 638

JOXEAN
HARATEGIA

Baserriko haragia Urdaitegi berezia

Bulandegi bidea, 1. Zizurkil
943 69 62 42



AITZBELTZ

*sukaldeko altzariak
elektrogailuak*

Arteta Kalea, 1 eta 3 - ANDOAIN
Tel.: 943 591 226 - Faxe: 943 300 345

G A N B A R A



T A B E R N A

Zatuz

Bertan aurkituko duzu girorik
jatorrena. Musika berria entzuteko
aukera paregabea duzu!

ARTETA KALEA 5-7 BEHEA. ☎ 943 591 971 ANDOAIN

Guk, La Salle Berrozpe, eta Zuk?



Ate Irekiak - Heziketa Zikloak

Apirilak 29, 16:30 - 19:30

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

Egitaraua

2010-04-24 CAMPING RENOVE

Pedro M^a Otaño Plazan 22:00etan. [Irapsu Zaharrak]

2010-04-26 ALI, HAREN AMONA

ETA ALFONBRA HEGALARIA [Txale Produkzioak]

6-12 urte bitarteko Zizurkilgo haurrentzat Atxulondo Kultur Etxean 15:15ean. (Kutxa)

2010-04-27 SAREBIDEAN [Pikor Teatro]

DBH 2, 3 eta 4ko gaztetxoentzat Villabonako Gurea Antzokian 11:00etan

2010-04-28

MUNDUA KOLORETAN [Txatxilipurdi]

3-6 urte bitarteko Zizurkilgo haurrentzat Atxulondo Kultur Etxean 10:00etan eta 11:30ean

2010-04-29 PEDRO M. OTAÑOko

HAURAREN EMANALDIK

11:00etan Atxulondo Kultur Etxea

LH1eko ikasleek "Hiru txerrikumeak" antzeztuko dute.

LH6ko ikasleek "Amona Benidorrem" antzeztuko dute.

2010-04-30 PREST GAUDE

[Azpeitiko Lakrikun Antzerki Elkarteak]

20:30ean Atxulondo Kultur Etxean.

Antzokian gaude



ZIZURKILgo

VIII. Antzerki Astea

Laguntzailea



VILLABONAKO UDALA

Antolatzailea



GOROSTIDI HARRIAREN IV. TXAPELKETA

Mendizabal II.-ren omenez

150 kiloko zilindro zaharrarekin txapelketa



Esku bakarrez:
Aimar Irigoien eta
Joseba Ostolaza

Mendizabal II.-aren
omenezko
aizkora saioa

80 kilo azpikoak eta bi
eskuz: Telleria anaiak
eta Josetxo Urrutia

75 kiloko txingekin
txapelketa.
Sariak lehenengo hiru sailkatuentzat



Sarrera: Borondatea



Antolatzaileak:



Adunako
Udala

ARANBURU

Artelkaritza - Aseguruak - Aholkularitza



Kelsen

